

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Danel, Maddi, Xabi eta Saioa gara, ideia honen sustatzaileak. Gauetan, jai-giroan, edarian droga bota izan ohi da, kontsumitzaileak jakin gabe. Edalontzian droga botatzen duenaren helburua edaria edaten duen pertsona, normalean emakumezkoa, borondaterik gabe uztea da, ondoren erasotzeko. Mehatxu oso larria denez, horri aurre egiteko asmoarekin asmatu dugu baso anti-droga delakoa. Material biodegradagarri batez osatuta egongo litzateke, eta material jakin honek zenbait substantzia, droga alegia, hautemango lituzke. Materialak droga hautematen duen momentuan, basoa desegin egiten da, biktimak droga irenstea ekidituz. Printzipioz egoitza Donostian kokatuko genuke, eta modu honetan gure nahia Euskal Herri osora hedatzea litzateke.



